



IÑAKI BERGARA / Monika Juaristi / **uztarria**

Iñaki Bergara

Monika Juaristi

© Egilea. Monika Juaristi

© Uztarria Komunikazio Taldea

2011ko azaroa

Azala eta maketazioa. Uztarria Komunikazio Taldea

Diseinua. Eregi Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak

Inprimaketa. Leitzaran Grafikak (Andoain)

Uztarria Komunikazio Taldea.

Helbidea. Perez Arregi plaza 1, behe. Azpeitia (Gipuzkoa), 20730

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Telefono zenbakia: 943 15 03 58

Fax zenbakia: 943 15 03 58

Posta elektronikoa: uztarria@uztarria.com

web orria: www.uztarria.com

AURKIBIDEA

Iñaki Bergara Izagirre 'Pio'	07
Bergara-Izagire sendia	08
Umetako garaiak	08
Umetatik lanean	12
Militar bokaziorik ez!	13
Familia	16
Goitizenak	20
Oholtza gainean	21
Pantailako aurpegia	38
Parranderoa	49
Sansebastianak	51
Karnabalak	54
Saninazioak	56
Errege-kabalgata	58
Zezenketak	58
Musikan ere bai	60
Erantzun azkarrekoa	65
Txori harrapaketan	66
Mendi bueltak	67
Egunerokotasuna	68
Gizon maitatua	70
Bueltan, saria!	72

IÑAKI BERGARA IZAGIRRE ‘PIO’

Iñaki Bergara Izagirre *Pio* Azpeitiko gizonik ezagunenetariko bat da. Lagun asko ditu, eta egindako lan guztiari esker, mundu guztiak ezagutzen du. Herrian presentzia handia duen gizona da. Alaba Milak dioenez, “*azpeitano* totala” da bere aita.

Oso gizon langilea da Iñaki. Batez ere, pantaila atzean eta oholtza gainean egindako lanei esker ezagutzen dugu. Antzerkian, telebistan eta zinemari egin du lan. Eta bere aktore lanengatik ezagutzen badugu ere, lan asko egin du agertokietatik kanpo. Hainbat lanbidetan aritutakoa da Iñaki, umetatik hasita. Herrian eta herrirako ere lan asko egin du: festetan, antzerkigintzan...

‘Langile’ hitzak oso ongi definitzen duen arren, beste ezaugarri asko erabili daitezke berari buruz hitz egiterakoan; izan ere, dohain askoko gizona da. Alaia eta umoretsua, mundu guztiaren ahotan irribarre bat jartzen dakiena. Apala, egindako lan guztia eginda, oraindik ere “ezer egin ez” duela dioena. Gizon ona, beti ingurukoei laguntzeko prest egon dena. Aita eta senar ona, beti familia zaindu duena. Lagunen laguna, bere lagunak edozeren gaineratik zaintzen jakin duena. Ezaugarri guzti

horien gainetik, bat nabarmendu dezakegu: langilea. Horrela definitzen dute inguruko guzti-guztiek.

BERGARA – IZAGIRRE SENDIA

Pio Bergara eta Francisca Izagirreren semea dugu Iñaki. Azpeitiko Erdikalean jaio zen, 1935eko uztailaren 19an. Aita izatez Zegamakoa zuen, baina oso gaztetatik Azkoitian bizi izan zen. Ama, berriz, azkoitiarra zen, Arume baserrikoa. Ogibidez, aita mikeletea izan zen garai batean; eta gerra kontuak zirela eta, kartzelan egon zen bi urtez. Ondoren, postaria izan zen, eta beranduago banketxean ere aritu zen lanean, Diputazioko langile moduan. Ama etxeakoandrea zen. Pio eta Francisca Azpeitira ezkondu ziren.


Iñaki bost senidetatik bigarrena da. Pio eta Franciscaren seme alabak Arantxa, Iñaki, Lurdes, Mamen eta Jabier dira.

UMETAKO GARAIK

Iñakiren arreba Mamen Bergararen esanetan, “umetatik oso alaia eta langilea izan da Iñaki. Txikitatik edozer gauzatan parte hartu nahi izaten



Bergara-Izagirre sendia.
Iaki Bergara, argazkian,
ezker-ekkerrekoa.



Bergara mutil kozkorretan,
liburua eskuetan duela.
Sei-zazpi urte izango zituen.

zuen. Herrira zirkoa etortzen bazen eta laguntzeko jendea eskatzen bazuten, Iñaki beti prestatzen zen laguntzeko.

Victoriano Fernandez *Maisu Beltza*-ren eskolan ibili zen, udaletxeko lehen solairuan. Ondoren, Maristetan ikasi zuen; Azpeitiko Enparantza Nagusian ematen zituzten eskolak haiek. Han ikasi zuen 13 urte zituen arte.

Iñaki Alberdi *Bentura* eta Iñaki Bergara *Pio* oso lagunak ziren txikitan, eta baita gaur egun ere. Biak Erdikalean bizi ziren eta, batera ibiltzen ziren beti jolasean.

“Gosea genuenean janaria lapurtzen genuen. Azokan tomateak, mendi inguruetan sagarrak, Elosiaga inguruan gaztainak, eta abar. Azokan tomateak hartu eta etxera eraman arte gordetzen nituen nik, ondoren prestatu eta jateko. Iñakik, aldiz, tomateak sagarrak balira bezala jaten zituen, gordinik, zeuden bezalaxe”, kontatzen du Alberdik.

Elosiaga auzora gaztainak biltzera joan zireneko pasadizoa ere kontatu du *Bentura*-k: “Denbora luzez gaztainak biltzen ibili eta poltsa bana goraino beteta genuela, gizon bat txakurrarekin hurbildu eta dena bueltatzeko eskatu zigun. Ni korrika batean aldapan behera abiatu nintzen; baita Pio ere,

nire atzetik. Nik zorte handiagoa izan nuen korrikaldi hartan; ihes egitea lortu nuen. Iñakik ez, ordea. Harrapatu zutenean poltsa kendu eta gaztaina gabe utzi zuten”.

Alberdiren esanetan, “Iñaki bizirik badago, Periko Zendoia *Sastre*-ri esker da. Ibaia hazita zegoen egun batean, Iñakiren arreba Mamen, Iñaki *Pio* eta ni ibai ondoan jolasean genbiltzan, eta baloia erre kara erori zitzaigun. Baloia uretatik kanpo geratu zen, lehorrean, eta Iñaki erre kara jaitsi zen baloia hartzera. Bat-batean, ibaiak gora egin eta urak harrapatu zuen mutikoa. Ibaiak indar handia zuen eta Iñaki urak eramane zuen. Mamenek eta nik, gertaera hura ikusita, beldurraren beldurrez galtzetan pixa egin genuen. Iñaki urak eramane zuela ikusita, etxera joan ginen, gehiago ez genuela ikusiko pentsatuta”. Baina ez zen horrela izan, Iñakiren zorionerako. “Periko *Sastre* etxeko balkoian zegoen eta, Iñaki urak eramane zuela ikusita, balkoitik Zelai Luzeko baratzetara salto egin, eta ondoren ibaira salto egin zuen. Igerian Iñakiren atzetik abiatu zen, uretatik ateratzeko. Azkenean, mutila uretatik ateratzea lortu zuen, Enparan parean. Hura poza hartu genuena Mamenek eta biok, Iñaki berriro ikustean!”.

UMETATIK LANEAN

13 urte baino ez zituela lanean hasi zen Iñaki, Damaso Azkue enpresan. “Lana egiteaz gain, ofizioa ere ikasi nuen. Noizean behin, hiru litroko edukiera zuen botila moduko bat ematen zidaten, ardoa ekarri nezan. Irteterakoan, beti agindu bat ematen zidan nagusiak: *Juteakuen kontuz, eta bueltakuen ojo a Critso!*”

15 urte zituenean, Legazpira joan zen, Patricio Etxeberria enpresan lan egitera. “Estanpazioan egin nuen lan, erremintak egiten. Goizean goiz, bizikleta hartu eta trenez Legazpira joaten nintzen. Egun batean, itzulerako trena galdu nuen eta bizikletan itzuli behar izan nuen Azpeitira, hamar orduz lan egin ondoren”.

Gerora, Azpeitira itzuli zen berriro ere lanera. “Fundiciones Ibaiondo enpresan hasi nintzen orduan. Han lanean aritu ostean, berriro ere Azpeititik kanpora joan nintzen, Irunera, hain zuzen ere. Irungo lantoki hartan ere fundizio lanean jarraitu nuen. Guztira, bederatzi urtez egon nintzen Irunen bizitzen”.

Laneko azken urteetan, Azpeitiko Laguntzaile enpresan egin zuen lan: “Femitxa hartu eta

kamioia kargatu, deskargatu eta bestelako lanak egiten nituen”. Femitxarekin egiten zuen lan, baina inoiz ez du gidabaimenik izan aktoreak. Ezagunek diote Iñakik bezala jende gutxik maneiaturiko lukeela femitxa, nahiz eta gidabaimenik eduki ez. Honezkero, derrapeak-eta guzti egingo lituzke azpeitiarrak. Azken enpresa horretan jubilatu zen Iñaki.

Argi dago eszenatokietatik kanpo ere lan asko egin duela bizitzan zehar Bergarak.

MILITAR BOKAZIORIK EZ!

Soldaduska egitea ere egokitu zitzaion, baina hila-betez baino ez zituen bete eginkizun militarrek.

Garai hartan, gurasoek 60 urte baino gehiago izanez gero posible zen soldaduska ekiditea. Eta Iñakik, osasun bikaina izan arren, ez zuen soldadu joaterik nahi.

“Aitak lagun batekin hitz egin zuen nire egoeraz, eta lagun hark mediku batekin hitz egitea gomendatu zion. Eta horrela joan zen aita medikuarengana, semea soldaduskatik libratzeko eskatzera. Medikua erantzuna, ordea, ez zen aitak nahi zuena izan; hori oso zaila zela esan zion.

Handik denbora batera, aitak bere lagunarekin egin zuen topo, eta ea ezer lortu zuen galdetu zion lagunak. Ezer ez lortzea normala zela esan zion, ez baitzion ezer eskani; eta bigarren gomendio bat eman zion: medikuari ‘eskaintza’-ren bat egitea. Berriro ere lagunari kasu eginez, medikuarengana joan zen eta, ‘eskaintza’ bat egin ondoren, aitaren lagunak esanda bezala, soldaduska egitetik libratu nintzen”.

Hala ere, gutxieneko heziketa militarrek burutu beharra izan zuen. Hamabost eguneko bi saio bete zituen: lehenengoa Donostian, eta bigarrena Carrascalan, Nafarroan. “Carrascalan pasatutako bi asteak oso luze egin zitzaizkidan. Soldaduskako lagunak eta postariak berak ere bazekiten horren berri, eta beti adarra jotzen zidaten, eguna iritsi zela esanez. Halako batean, benetako gutuna iritsi zen, etxera joateko baimena emango zidan gutuna. Sarjentuak bere dendara joateko agindua eman zidan eta, harekin hitz egin eta gero, etxera joateko baimena eman zidaten”.

Azpeitira etorri eta egun gutxira Donostian bere militar jantzia bueltatzeko agindua zuen. “Eta horrela joan nintzen, egun gutxira, jantzia itzultze-ra. Tenientearekin bildu eta, jantzi osoa ondo al

zegoen aztertzerakoan, han mosketoia falta zela ikusi zuten. Mosketoia izorratuta zegoela eta Carrascalen laga nuela azaldu nion tenienteari. Hark, ordea, ez zidan sinetsi eta trajea eta gainerako osagarri guztiak itzuli arte ez nintzela libratuko esan zidan. Orduan, trena hartu eta Carrascalera joan nintzen, nire arma eskatzera. Kaleko arropa jantzita joan nintzen kuartelera. Etxerako baimena eman zidan sarjentuarekin bildu nintzen berriro ere, eta mosketoia militarrez jantzita bakarrik garraiatu zitekeela gogoratu zidan”. Horrek berriro Donostiara itzultzea suposatzen zuen, militar jantziak han utziak zituelako, mosketoia zain; ondoren atzera Carrascalera joan, soldadu jantziarekin mosketoia jaso, eta berriro Donostiara joatea, jantzia eta mosketoia, biak batera, itzultzeko.

“Kasualitatez, soldaduska burutzen ari zen donostiar batek ezkontza batera joan nahi zuen, baina ez zioten baimenik ematen. Niri mesedea egiteko, ezkontzara joaten utzi zioten azkenean, eta horrela, hark eramane zuen nire mosketoia Carrascaletik Donostiara”. Aldrebeskeria bat bestearen atzetik egin eta ibilera surrealista guzti haien ondoren, soldaduskatik libratzea lortu zuen behintzat, azkenean, Iñakik.

FAMILIA

Iñakiren bizitzan familia da, dudarik gabe, altxorrik preziatuena.

Iñakiren emaztea Maria Agüero Cañadas da, izatez Melillakoa. Azpeitiar bat Melillako emakume batekin ezkontzea arraroa izan daiteke bai, baina kasualitateak horrelakoak izaten dira, eta Iñaki eta Maria Azkoitian ezagutu ziren. “Garai hartan, nire ahizpa Azkoitian zebilen lanean, baina gaixotu egin zen eta ni, ahizpa guztien artean zaharrena izanik, Azkoitira etorri nintzen, 19 urte bakarrik nituela, ahizpari laguntzera. Hamar urte luzez egon nintzen Azkoitian bizitzen”, kontatzen du Mariak.

Iñaki eta Maria Lagun Onak eta Anaitasuna futbol taldeen arteko partida batean ezagutu ziren. Eta handik aurrera elkar ezagutzen jarraitu zuten.

“Beranduago, Melillara itzuli behar izan nuen. Han denbora batez egon nintzen, baina, hala ere, kontaktuan jarraitu genuen. *Vienes tú o voy yo!*, esaten zidan Iñakik, behin eta berriz. Azkenean, neu etorri nintzen”, azaltzen du Iñakiren emazteak.

Urte batzuetara, Loiolako basilikan ezkondu ziren. Beranduago, Irunera joan ziren bizitzera, Iñakik han egiten baitzuen lan.

“Irunen bizitzen geundela, haurdun geratu nintzen –gogoratu du Mariak–. 1967an Itsaso jaio zen, gure lehen alaba. Neskatoa aitaren antzekoa zen. Iñakiren argaltasuna zuen, eta izaeran ere, aitaren aldera ateratzen zen. Itsaso orain dela bi urte, 2009an, zendu zen minbiziaren ondorioz. Etxeko guztiontzat, eta Iñaki berarentzat, oso kolpe gogorra izan zen hura”.

1968an, Maria berriro haurdun gelditu zen. “Iñakik bigarren hura mutikoa izatea espero zuen. *Iñaki txikiye*, esaten zuen, behin eta berriz. Baina bigarren hura ere neska izan zen; Mila, hain zuzen. Bigarrena nire antzerakoagoa da, bai fisikoari dagokionean, baita izaerari dagokionean ere”.


Mila Bergarak dioenez, “aita oso atentoa izan da gurekin beti. Lan asko egin arren, bazkaltzera eta afaltzera beti etxera etortzen zen, eta gainontzean ere, gurekin egoteko tarteak egiten zuen”.

Txikiak zirenean udan amaren herrira joaten ziren, Melillara. “Aitak lan egin behar izaten zuela eta, abuztuan joaten zen hara. Gure aita oso *azpeitianoa* da. Saninazioak pasatu eta gero joaten zen oporretara. Ezin izaten zuen festetan huts egin. Irailean bueltatzen ginen berriro Azpeitira, eskola hasterako”.

María Agüero eta Iñaki Bergara Loiolako
Basilikan ezkondu ziren, 1966ko azaroan.



Iñaki Bergara alaba
Itsasorekin Lekeition,
1981ean.



Bergara-Agüero sendia: Iñaki eta
Maria senar-emateak, Itsaso eta
Mila alabekin.

Itsasok bost urte eta Milak lau zituztenean, familia osoa Azpeitira etorri zen bizitzera. “Garmedin bizi izan ginen urte askoan. Gero, Txaribarko Errebalera aldatu ginen”. Gaur egun, han bizi dira andre-gizonak.

Mariaren esanetan, Iñaki “gizon oso-oso ona” da. Senarrarentzako hitz onak baino ez ditu Melillakoak. “Pertsona oso alaia eta oso irekia da. Betidanik familia asko baloratu du, asko zaindu gaitu eta beti gure ondoan egon da. Lan asko egin arren, beti ateratzen zuen etxekoekin egoteko nahikoa denbora”. Mariak asko baloratzen du hori. 45 urte daramatzate ezkontuta azpeitiarrak eta melillarrak.

GOITIZENAK

Iñaki Bergara esanda askok jakingo dute Azpeitian noren inguruan gabiltzan hizketan, baina guztiek ez, ezta gutxiago ere. Aldiz, *Iñaki Pio* edota *Kaxkurrio* aitatuta, mundu guztiak, zahar eta gaztek, jarriko dio aurpegia gure protagonistari.

Iñakiren aitaren izena zen Pio. Ondorioz, jendea bai Iñakiri, baita haren anai-arrebei ere, *Pio* deitzen hasi zen; hortik, *Iñaki Pio*.

Guztiok dakigu zergatik deitzen dioten Iñakiri *Kaxkurrio*. Iñakiren alaba Milak dioenez, “ez zait gustatzen jendeak gure aitari *Kaxkurrio* deitzea. *Goenkale*-n antzeztutako pertsonaiaren ondorioz, kalean jende askok esan izan dit gure aita mutilzaharra zela uste zutela. ‘*Kaxkurrio* mutilzaharra zen, eta nire aita ezkontuta dago eta bi alaba ditu’, erantzuten nien”.

OHOLTZA GAINEAN

Iñakik ez zuen inoiz aktorea izango zenik pentsatu. 13 urterako lanean zebilen eta bere lana lantokikoa izango zela uste zuen. Baina... Bai deskuidatu ere!

Aktore izatean pentsatu ez arren, 25-30 urte inguru zituenean, bere lehen antzezpena egin zuen, *Ustekabeko poza*, horrek ondorengo guztia ekarriko zuela pentsatu ere egin gabe. Ordura arte antzerkian ibilitako Jaxinto Arregik zuzendu zituen obra hartan Iñaki eta lagunak.

Urte batzuk beranduago, Oargi erakunde kulturalak, Inaxio Rezabal *Potxolo*, Juanito Bikendi, Jaxinto Arregi eta herrian antzerkian ibilitako zenbait laguni omenaldi txiki bat egitea erabaki zuen eta Iñakik, beste batzuekin batera, lan hartan parte

hartzea erabaki zuen. Beste behin, *Ustekabeko poza* antzeztu zuen omenaldi hartan. Orduko hartan, ordea, ezin zituen Jaxintok zuzendari lanak egin, bera baitzen omendua. Ondorioz, eurak nahiko galduta zebiltzala eta, Imanol Eliasi zuzendari lanak egiteko eskatu zioten. Eliasek, baldintza moduan, antzerki munduan jarraitzea eskatu zien.

Antzerki hura egin eta gero, Imanolek eskatu bezala, antzerki munduan jarraitzea pentsatu zuten eta Antxieta Antzerki Taldea sortu zuten. Handik aurrera, ia urtero antzerki obra bat eskaintzen zuten herrian. Herrian bertan antzezten zuten lehenengoz obra bakoitza, eta ondoren inguruko herri txikietara joaten ziren obra bera publiko berriari eskaintzera. Antxieta taldearen helburuetako bat gainontzeko antzerki taldeak iristen ez ziren herri txikietara iristea zen.

Taldearen hasierako garaiak gogorrak izan ziren. Baliabide gutxi zituzten eta lan guztia eurek egin behar izaten zuten: dena prestatu, muntaia egin, argiztapena doitu, antzeztu, dena jaso, eta abar. Horri dagokionean, Antxieta kide izandako denak ados daude gauza batean: lan horiek guztiak egiteko Iñaki ezinbestekoa zen. Beste guztiek lagundu arren, bera zen lan gehiena egiten zuena.

Iñigo Agirrek kontatzen duenez, “tximinoa bailitzan egiten zuen lan Iñakik. Lurretik hamabost metrora igo eta hogeita hamar zentimetroko zabalera zuen egurraren gainean ibiltzen zen, ez arnes eta ez segurtasun neurri. Bailarina baten moduan mugitzen zen”.

Aldiro bost orduko prestaketa egin behar izaten zuten emanaldia egin aurretik. Joxe Zabalak dioenez, “Iñakik 16 urte balitu bezala egiten zuen lan. Lanean hasten ginenean Iñakik sekulako bizitasuna zuen eta beti esaten nion nik: *Hi jun hai! Hiri etziok segitzeik eta!*”.

Antzerkia egin aurretik ere eszenatokiak ikustera joan behar izaten zuten, lekua ikusi eta muntaia apur bat prestatzen joateko. “Iñaki lan horretarako ere beti prest egoten zen. Materiala lortzerakoan ere, berari esker lortzen genituen gauza gehienak. Egur enpresan egiten zuen lan eta, horri esker, *atrezzo*-rako behar genituen elementuak lortzen zituen taldearentzat”, dio Zabalak. *Atrezzo*-arekin bezain trebea da eskulanetan Bergara. “Abildade handiko gizona izan da beti. Eskulanetan ere oso oso trebea zen”. Leire Betegik kontatzen duenez, “aldizkari batean lepoko bat ikusi nuen eta asko gustatu zitzaidan. Aldizkaria hartu eta Iñakiri era-

kutsi nion. Ea halako bat egingo zidan galdetu nion. Hurrengo entsegurako lepoko berdin-berdina berak eskuz eginda eraman zidan”.

Antzerkia eskaini behar zuten egunetan, kamioikada material eraman behar izaten zuten eta Iñaki beti kamoiarekin batera joaten zen. “Material guztia bertan joaten zen eta Iñaki ere kamioian joan ohi zen. Antolakuntza lanetan lan handia egiten zuen. Kamioian material asko sartu behar izaten genuen eta Iñaki dena era ordenatuan sartzeaz arduratzen zen. Lekua aprobetxatu beharra zegoen eta lan hori oso ondo egiten zuen”. Denek gogoratzen dute nola oihukatzen zuen Iñakik kamioi barrutik: “*Lehelen burniyek, oin egurrek... eta azkena argiztapen ekipue*”. Argiztapen ekipoa arreta handiz zaintzen zuen Iñakik, makina hura gabe ez baitzen argirik.

Antxietako lagunak esanetan, “lan egiteaz gain, ezusteko arazo nahiz beharren bat sortzen zenean ere lehenetarikoa izaten zen konponbidea aurkitzen”. Gogoan dute Hondarribian eszenatokia erori zitzaien eguna. “Obra erdian geundela, haize bolada gogor batek agertokia behera bota zuen. Denak beldurtuta, geldi-geldi geratu ginen. Iñaki, aldiz, korrika joan zen eszenatoki erdira, hura jasotzera”.



Antxietako obra bat
antzezten, hasierako
urteetan.

Horrenbeste lan eginda, normala da noizbait gauzak gaizki ateratzea. Idoia Urangak gogoan du egun batean argiztapenarekin gertatutakoa: “Herri txiki batera joan ginen batean Iñakik, beti bezala, antzerki obrarako argiztapen guztia prestatu zuen: argia doitu, elektrizitate kutxara kableak lotu, eta abar. Antzerkia oso ondo atera zitzaigun eta herri-tarrek zoriondu egin gintuzten. Ondoren, dena jasotzea tokatzen zen, eta lan hartan genbiltzala, sekulako eztanda entzun zen frontoian. Eztanda hura elektrizitate kutxatik zetorrela ohartu ginen; frontoia guztiz ilunpean geratu baitzen, argirik gabe. Herritarrei eskerrak eman, haiek agurtu eta ziztu bizian ospa egin genuen herri hartatik”.

Baina Iñaki ez zen lana bakarrik. “Taldeko poza” zela ere badiote taldekide izandakoek: “Taldean sekulako giroa jartzen zuen eta hura han zenean barre asko egiten genuen. Behin baino gehiagotan Iñakiren kontuak zirela-eta algaraka hasi eta ezin izaten genion barre egiteari utzi”. Nagore Aranburuk 10 urte inguru baino ez zituen Joxe aitarekin Antxieta taldean antzezten hasi zenean. “Taldeko entseguak jolas-ordu luze bat bezalakoak izaten ziren niretzat. Iñaki talderako gizon mundiala zen”.

“Saltsa guztietako perrexila da Iñaki”. Hala deskribatzen du, behintzat, Joxe Aranburu lagunak. “Beti laguntzeko eta lanerako prest egoten zen. Eta zerbait behar bazen, Iñakik beti aurkezten zuen bere burua laguntzeko”.

Antxieta taldekoen arabera, “edukazio oneko gizona” izan da beti Iñaki Bergara. Baina, hitz onak baino ez izan arren, noizean behin, denok bezala, haserretu izan da Iñaki. Taldekideetako batzuk atzo balitz bezala gogoratzen dute kableak nahasi eta sekulako kalanbrea jaso zuenekoa. “Orduan, 800 maldizio inguru bota zituen”. Hala gogoratzen du Iñigo Agirrek. “Beti ileak atzera orraztuta eramaten zituen, baina kalanbre hura jaso zuenean jota tente-tente geratu zitzaizkion”.

Baina arraroena kalanbreak ez jasotzea izango litzateke. “Beste behin, argindarrarekin lanean zebilela, Iñaki izerdi patsetan zegoen eta ezin zuen kablea bere lekuan jarri. Zer bururatuko, eta kable hura bere ilean lehortzea, hartara zegokion tokian errazago sartzeko. Bigarren kalanbrea eman ez zionean...”, diote oraindik ere lagunak.

Iñaki oso gizon langilea izan da. Baina ez alderdi teknikoari dagokionean bakarrik, baita alderdi artistikoari dagokionean ere. Aktore lanetan ere

edozein rol betetzeko gaitasuna izan du beti. Joxe Zabalaren esanetan, “berdin-berdin antzezten zuen 16, 35 nahiz 70 urteko pertsonaia”.

Antzeztekoan ere dena ondo ateratzea gustatzen zitzaion aktoreari. Eta ahalegin horretan, garesti ere atera izan zitzaion perfekzioa. Antzezpen batean kokotseko bizar faltsua itsatsita zerraman eta, obraren erdian, erori egin zitzaion. Amorrua eman zion orduan eta bere buruari honakoa esan zion: *Hau etzetak ba berriz pasauko!*. Hurrengo emanaldian, berriro berdina ez gertatzeko, Iñakik azalean itsasu zuen kokospeko faltsu hura, produktu berezi bat erabilita. Ez zitzaion erori, ez, baina kentzeko garaia iritsi zenean, hain zegoen pegatuta, bere azal eta guzti kendu zuela. Okotza gorri-gorri geratu zitzaion, “lumatutako oilo baten antzera”.

Beste aktuzio batean antzeztean deskuidatu egin zen, eta amorruren amorruez bere buruari sekulako koskorrekoa eman zion. Hala gogoratzen du Joxe Zabalak: “Bere lana ondo egitea gustatzen zitzaion eta amorrua eta pena handia ematen zion eszenatoki gainean nahasteak”.

Antzerkian lan egin aurretik arnasketa ariketak egiteko ohitura zuten Antxietakoek.

“Katxondeorako denbora” izaten zen gehienbat, baina hori ere egiten zuten. “Iñaki oso kontzentratuta egoten zen arnasketa ariketak egiterakoan, eta arnasketa ariketak baino, yogako ariketak egiten ari ginela ematen zuen. Barre asko egiten genuen hori zela eta. Urduritasuna nabarmendu arren, Iñakirekin barre egiteak asko lasaitzen gintuen”, dio Leire Betegik.

Iñakik dedikazio handia izan du beti antzerkirako. “Entsegu guzti-guztietara joaten zen. Noizbait falta bazen, denok galdetzen genuen ea non zegoen. Ez zen normala Iñaki ez agertzea. Beti-beti han egoten zen lanerako prest, inoiz hutsik egin gabe”.

Pedro Otaegik ere oso gogoan ditu Iñaki *Pio* lagunarekin Antxieta taldean bizitako garaiak. “Auzo berean bizi ginen eta, betidanik elkar ezagutzen genuen arren, Antxieta Antzerki Taldean egin genuen benetako hartu-emana. Lagun alaia eta langilea izan da beti Iñaki. Anekdotak moduan, gogoratzen dut, antzerki obrak amaitzean, moka-dutxoren bat egitera joaten ginela eta zerbitzariak zer edan nahi genuen galdetzen zigunean, ‘*Ardue eundoko mordue!*’ eskatzen zuela Iñakik”. Esaldi hori oso gogoan dute oraindik ere Antxietako partaide zirenek.


Urteak aurrera joan ahala, Antxieta Antzerki Taldeko kideak euren familiak osatzen joan ziren, eta egoera berri haren aurrean denbora antolatu eta lehentasunak zehaztu behar izan zituzten. Iñakik ere bazuen familia, baina beti ere haien babesari esker, aurrera egin eta antzerkian jarraitu ahal izan zuen. Guztia batera eramaten jakin izan du beti, alde batera ezer utzi gabe.

Antzerkiaz gain, beste lan batzuk ere egiten zituzten Antxieta Antzerki Taldekoek. Horren adibide garbiak dira Imanol Eliasek idatzitako *radionobelak*. Garaiko zuzendariak antzezlantxo batzuk idazten zituen, ondoren irratian emititzeko. Antxieta Antzerki Taldeko kideek Antxieta Etxean zuten grabagailuan nobela haiek grabatzen zituzten eta gero, astean behin, Arrate Irratian ematen zituzten.

Astero-astero, kapitulu bat ematen zuten. “Oso istorio politak ziren, oso lan polita zen, eta oso ondo pasatzen genuen”, gogoratzen du Iñaki Bergarak.

Argi geratu da aktore eta teknikari ona zela Iñaki, Antxietako garaietan. Baina taldekide izandakoek gehien azpimarratzen dutena haren “umorea” da. “Giro oso ederra jartzen zuen taldean.

Handitasun ametsak obran, 1986an.
Ezkerretik hasita, Itziar Oiarzabal, Iñaki
Bergara eta Pilar Aizpitarte.



Antxieta Antzerki Taldeak
eraman zuen lekukoa
2003ko Korrikan.

Haren presentzia oso garrantzitsua izan da, talde-rako ezinbesteko pieza. Pertsona bezala ikaragarri baloratzen dugu”, diote.

Guztira, 20-22 urte inguru egin zituen Bergarak Antxieta Antzerki Taldean, aktore lanetan; taldearen sorreratik amaierara arte, hain zuzen ere. Hamalau antzeki lanetan hartu zuen parte: *Sendagile traketsa; Jokoa Nagusi; Lapurreta urtsua; Bi ahoko ezpata; Handitasun ametsak; Hiru morroiak; Sendagile dantzaria; Bat, bi, hiru; Komedi zaharrak; Beste mundukoak eta zoro bat; Nornorinork, hau saltsa; West side isteria; Gertatutakoa agian eta Hamar minutu gauerdirako.*

Antxieta taldea desegin zenean, kide gehienek antzerkia egiteari utzi zioten; baita Iñakik ere. Baina antzerki amateurrean egin duen ibilbidea ez zen han amaitu. Hasiera batean, Antxieta Antzerki Taldearen desgitearekin batera erretiratu bazen ere, handik gutxira Lakrikun Antzerki Taldean hasi zen antzezten. Haiek aktore beharrean zeudela-eta Iñakiri deitu zioten eta honek, beti bezala, baiezkoa eman zien.

Antxietan bezala, hemen ere lan eta lan ibiltzen zen Iñaki. “Beti eskailera puntan” ibiltzen zela gogoratzen dute honen taldekide izandakoek.

“Argiztapena egokitzen aritzen zen, kamioia zuzentzen... Beste guztioi beldurra ematen ziguna egiten zuen Iñakik eta behatzak ere beldurrik gabe sartzen zituen entxufeetan”. Talderako pertsona garrantzitsutzat zuten Iñaki Lakrikun taldekoek ere.

Lakrikunen ere, argiztapena kontrolatzeak Iñakiri tratu txar bat baino gehiago pasatu arazi ziola diote Alaitz Olaizolak eta Gurutze Eizmendik. “Egun batean, artean aktore lanetan ez zebilela, argiztapena kontrolatzeko eskatu genion. Hala joan zen Oiartzunera taldearekin. Obra amaitzean argi guztiak pizteko agindua eman genion. Han ari ginen antzezten eta, Iñakik obra hura ondo ezagutzen ez zuenez, amaitu baino pixka bat lehenago argi guztiak piztu eta obra amaitutzat eman zuen”. Hala ere, ez zela antzeman diote, barre artean.

Beste behin Deban, ordurako aktore lanetan hasita zegoela, antzezten ari zirela argirik gabe geratu ziren bospasei aldiz. Lakrikuneko kide Alaitz Olaizolak kontatzen duenez, “Iñaki korrika joaten zen aldi bakoitzean, berriro ere argia martxan jartzera. Korrika joan zen horietako batean, ez zen ohartu bere txanda zetorrela eta ez zion oholtxa gainera itzultzeko denborarik eman. Ondorioz, nik esan behar izan nuen haren esaldia”.

Prestaketa lan guztiak amaitu ostean, eta antzezten hasi aurretik, *Pio*-k beti zigarroa piztu eta gidoia hartzen zuen eskuetan, lanari azken errepa-so bat emateko. “Inoiz ez zitzaion gidoia eramatea ahazten, eta azken momentura arte guztiz kontzen-tratuta errepasatzen egoten zen. Batzuetan, inpresioa eta dena egiten zuen Iñaki horren serio ikustekak. Eszenatokira irten aurretik urduritasuna nabaritzen zitzaion arren, lasaitasuna transmititzen zigun. Beti lasaitzeko hitzak esaten zizkigun eta taldea lasaitzen zuen”, dio Olaizolak.

Hainbeste antzerki obra eskaini eta hainbeste bidaia eginda, ezinezkoa da dena ongi atera izana. “Olaberriko frontoian antzeztu behar genuen behin. Joaterakoan kamioia izorratu eta mila komeria izan genituen. Ondoren, *Rosa de España*-k *Eurovision* jaialdian abestu behar zuela eta, zazpi pertsona baino ez ziren joan gure emankizunaz gozatzerako. Hala ere, emanaldia eskaini genuen gerturatutako gutxi haienez”, kontatu dute Olaizolak eta Eizmendik. Ondoren, betiko moduan, afaltzera joan eta Martin Alegria eta Iñaki, ohikoa zuten moduan, Martinen kotxean sartu eta Azpeitira abiatu ziren. “Abiatzerako kotxeak gauza arraroak egiten zituela ikusi genuen, baina hala ere jarrai-

tzea erabaki genuen. Zumarragatik Azpeitira bidean geundela, Artetxe erreka parean, autoa ez aurrera eta ez atzera geratu zitzaigun. Telefono mugikorrik gabe geunden, kotxea han gaizki zegoela ikusi genuen eta Aizpurutxoraino eramatea erabaki genuen. Kotxea ez zebilenez, bakoitzak hanka bana kotxetik atera eta Aizpurutxoraino bultzaka eramanez genuen”. Hura bai izango zela antzerkia! Martinek barre artean gogoratzen du Iñakiren bizitako pasadizo hura.

“Beste behin, Leitzara joan ginen herritarrei antzerkia eskaintzera. Etxetik kanpora antzeztan genuenean, inoiz ez ginen etxera joaten afaldu gabe; beti egin behar izaten genuen mokadutxoren bat. Egun hartan, Leitzako soziedade batean afaria izan genuen, eta nola ez, lepo jan eta ardo ederra edan genuen. Ondoren, *Pio* eta biok kotxean sartu eta etxera abiatu ginen. Azpeitira iritsi eta Landeta auzoan, ertzainek altoa eman ziguten. Alkoholemia frogatu egin nahi zidaten. Nola edo ahala polizia ondo geundela transmititu nahi izan genien. Ardoarekin ondo moldatzen ginela esan genien. Saiakera guztiak alferrikakoak izan ziren. Azkenean, putz egin behar izan nuen. Bion pozera-ko gaititu egin nuen alkoholemia frogatu, eta asko

kostatu ostean, etxera iritsi ahal izan ginen Iñaki eta biok”.

Bergarak antzerki amateurrean hasi zuen bere karrera artistikoa; bertan hazi, bertan hezi, eta bertan jarraitu zuen. Telebista eta zinema lanak egin zituen arren, apaltasunez antzerki amateurrari laguntzen eta lan egiten jarraitu zuen. Asko eskertzen diote hori azpeitiarrek. Telebistara jo izan balu, beharbada, urrunago iritsiko zen, baina Iñakik bazekien nondik zetorren bera, eta antzerkiari eskerrak ematen jarraitu du orain dela urte gutxi arte.


Antxietan bezala Lakrikunen ere, inoiz ez zuen entsegu bat bera ere uzten. Beti han egoten zela diote. “Inoiz utzi bazuen, Realaren partidaren bat ikusteko izango zen. Baina oro har, arraroa zen Iñaki ez zegoen eguna. Beti hantxe egoten zen, gidoia eskuan, entseatzeko prest. Gainera, entseguetan bere iritzia eman eta ekarpen pertsonalak ere egiten zituen, taldearen onerako. Baina, aholkuak eman arren, inoiz ez zuen ezer inposatu edo exijitzen”, diote Alaitz Olaizola eta Martin Alegria aktoreek.

Guztiak diote “jendea maitasun eta gertutasun osoz” hartzen zuela: bai taldekideak, baita haien

*Zereko zera zertzen delako
zereko zerarekin obran, 1999an.*



*Agoragofobiatuta obran, Alaitz
Olaizola eta Bergara.*



senideak ere. Pertsona ona da Iñaki eta hori bere ibilbide guztian zehar oso markatuta dago. “Lakrikun antzerki taldean ezinbestekoa izan da Iñaki. Gizon mundiala da”, gaineratu du Boni Alegriak.

Lakrikun Antzerki Taldean bost bat urte eman zituen, aktore. Guztira, lau obratan antzeztu zuen: *Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin*; *Garalderen Requema*; *Agorafobiatua* eta *Maritxu nora zoaz, eder galant hori*, *Azpeitira Bartolo*, *nahi badezu etorri*.

Bost urte haien ostean, antzerkiko ibilbidea amaitu zuen, baina telebistan eta zineman lanean jarraitu zuen.

PANTAILAKO AURPEGIA

Lakrikun Antzerki Taldean lanean zebilela telebistatik deitu zioten. Garai hartan jende asko joaten zen eta, beste batzuen artean, Iñaki aukeratu zuten *Goenkale* telesailean aktore lanak egiteko. Pedro Otaegi azpeitiarra ere deitu zuten.

Goenkale telesailean txikiteoa asko atsegin zuen igeltsero baten papera betetzen zuen Iñakik, *Kaxkurrio*-ren papera, hain zuzen ere. Hamar urtez aritu zen *Kaxkurrio* pertsonaia antzezten; 1995.

urtetik 2005. urtera, hain zuzen. Bergararen esanetan, “hamar urte haietan oso gustura egon nintzen han lanean. Pausoka ekoiztetxeko taldean oso jende jatorra zegoen eta giro ona zen nagusi. Aktoreen artean lagun giro ederra genuen”.

Idoia Uranga azkoitiar aktorearen esanetan, “Iñakiren inguruan beti giro ona zen eta berarekin lan egiteak lasaitasuna ematen zidan. Antxietan oso ondo konpontzen ginen elkarrekin, eta *Goenkale* telesailean lana batera egiten genuenean etxean bezala sentitzen nintzen”. Argi dago, beraz, Iñakik adin guztietako jendearekin harreman oso ona izan duela beti.

Iñakirentzat telebistan hasteak izan zuen alde gogorrik ere. Izan ere, *Goenkale* jende askok ikusten zuen eta, ondorioz, kalean mundu guztiak ezagutzen zuen. “Gezurra badirudi ere lotsatu egiten nintzen. Hasiera hartan, ospetsu izatea zaila egiten zitzaidan”.

Behin, Donostiako Pasealeku Berrian pasieran zebilela emakume batek gelditu zuen:

-*Hara! Zu Kaxkurrio ez zara ba!*

-*Neu naiz bai!*

Emakume hark harriduraz begiratu zion eta zera bota zion:

-*Baina orain ez zaude mozkortuta, ezta?*

Kaxkurrio-k barre egin, eta besterik ez zion esan.

Beste behin, Urbira igotzen ari zela, familia batekin egin zuela topo kontatu du Zabalak. “Haiek hantxe zeuden arratsalde pasa eta Iñaki gora zihoan. Bi ume zeuden tartean. *Pio* pasatzen zen bitartean, bi haurrek harriduraz begiratu eta urruntzen ari zela, *aio Kaxkurrio!* oihu egin zioten umeek”.

Alaba Milak dioenez ere, “gure aita mundu guztiak ezagutzen du. Goazen lekura goazela, mundu guztiak begiratzen dio oraindik ere: aireportuetan, inguruko herrietan... Madrilen ere ezagutu izan dute; hango euskaldunek, noski. Behin, Tolosako Ogasuneko bulegoetara joan beharra izan genuen, aitari Azpeitian hitzordua pasatu zitzaiola eta. Tolosara iritsi eta ez genekien nora joan behar genuen. Denda batera sartu ginen aita eta biok Ogasuneko bulegoak non zeuden galdetzera. Ni dendariari galdezka ari nintzen bitartean, hark ez zidan begiratu ere egiten; atzera begira zegoen denbora guztian. *Zeikusten ote dik honek!*, pentsatzen nuen neurekiko. Halako batean, dendariak oihukatu zuen: *Ala! Kaxkurrio!*”.

Lakrikun Antzerki Taldeko lagunekin ere, joaten zen lekura joaten zela *Kaxkurrio*-ren paperaga-

tik mundu guztiak ezagutzen zuen. “Gustu handiz eta edukazio osoz denak agurtzen geratzen zen”, dio Gurutze Eizmendik.

Goenkale-n ospetsu egin eta hasieran “zaila egin” bazitzaion ere, *Kaxkurrio* izan da, hain zuzen ere, Iñaki Bergarak gustukoen izan duen pertsonaia. “Giro ederrean ibiltzen nintzen han eta oso ondo pasatzen nuen lanean egon arren. Gustuko giroan murgiltzen nintzen grabatzera joan beharra nuen bakoitzean”. *Kaxkurrio*-ren papera berarentzat neurrira egindakoa dela dioenik ere bada; Iñakiren bizitza eta berezko umorea pantailara eramatea bezalakoxea zen hura.

Alabek ere bizi izan zituzten *Goenkale*-ko garaiak. “Grabatzera joan behar izaten zuenean, ETBkoek taxi bat bidaltzen zioten etxera. Gure aitari ez zitzaion, ordea, taxian joatea gustatzen. Lanera taxian joateak lotsa ematen zion”. Hori baino apalagoa izan da Iñaki beti. Orduan, bere alabei eskatzen zien Donostiara eramateko. “Goizeko 6ak aldera jaikitzen ginen, aita grabazio-ra eramateko”, gogoratzen du Milak.

Nobedadea izanda, hasiera batean, etxekoek asko jarraitzen zuten Iñakiren ibilbidea telebistan. Hala ere, gehiena Mariak ikusten omen zuen sena-

rra telebistan, “eta hori ez duela euskara ulertzen”, dio Milak.

Goenkale-n ez ezik, *Balbemendi* telesailean ere egin zuen lan Iñakik; telesaileko auzoko arotza zen. Beldurrezko telesail hartan gaueko eszena asko sartzen ziren; eta Iñakik gogoratzen du nola behin gauez grabatzera joan behar izan zuen. Gaueko 9ak aldera joan eta goizeko 6:30ak arte egon zen grabaketa lanetan. Gauez basoan grabatzen zuten eta, beldurrezko telesaila izanik, beldurrezko eszenak grabatzen zituzten. Eszena horietan, baso erdian argiak, kea, eta beste zenbait elementu jartzen zituzten. “Neuk ere behin baino gehiagotan beldurra sentitu nuen, grabatzen ari ginela –dio Iñakik–. Nik telebistan bizitako esperientzia arraroena izan da, xelebreena”.

Goenkale-n bezalaxe, *Balbemendi*-n ere giro paregabea zutela dio aktoreak. “Lehendik ere aktore ia guztiak ezagutzen nituen eta, giro paregabea genuen. Guztira zazpi alditan-edo ibili nintzen grabaketetan”.

Euskolegas telesailean ere agertu zen azpeitiar aktorea. Bertan, kapitulu batean figurante lan txiki bat baino ez zuen egin, ordea. Telesail horretakoa oso esperientzia motza izan zen.

Beranduago, 2009. urte inguruan, *Brinkola* telesailan aritu zen lanean. Telesail hori Asier Altunak eta Telmo Esnalek zuzendu zuten. Telesailan *balladunak* bezala ezagutzen ziren bi pertsonaietako bat antzezten zuen Bergarak; bestea, Joxe Aranburu antzerkiko azpeitiar lagunak egiten zuen. Balla atzetik obrak edo antzerakoak begiratzen egoten ziren eta hortik zetorkien izena. Grabazioan “saltsa handia” ibiltzen zutela dio Telmo Esnalek. “Azkeneko erroberak jarri genizkien ballen orde zuten eta oraindik eta gusturago ibiltzen ziren bi *balladunak*”.

Telmo Esnalek gogoan du Iñakik egindako eszena bat: bi *balladunek* neska batekin bainuontzi batean sartu behar zuten eszena hura grabatzeko. “Sekulako komeriak” ibili zituztela dio zuzendariak, hiru pertsonaiak ontzi txiki hartan sartzeko: “Barre pila bat egin genuen. Gainera, lehenengoan neska argal batekin sartu behar zuten, eta bigarrengoan neska gizenago batekin. Denboraz larri genbiltzanenez, presaka sartu behar genituen eta... A ze komeriak!”.

Esnalek dioenez, “Joxe Aranburu eta Iñaki Bergara, biak, zoratu egiten genituen. Egun batean joateko esan eta azkeneko momentuan ezezkoa

ematen genien batzuetan, eta alderantziz ere bai. Hala ere, bi lagunek jarrera paregabea erakusten zuten eta inoiz ez ziren kexatu. Beti laguntzeko prestutasuna adierazten ziguten eta, horrela, lana erraztu ere bai”.

Telesail berezi horretan, *Brinkola*-n, “dena xelebrea eta, nolabait esateko, zentzugabea” zela dio Iñakik: “Gelditu gabe barrezka aritzen ginen. Arropak eta betaurrekoek ere grazia egiten ziguten eta... Grabaketan oso ondo pasatzen genuen”.

Brinkola-n lanean ibili ziren aktore guztiak lehendik ere ezagutzen zituen Iñakik eta, kasu horretan ere, “giro paregabea” zutela lanerako. Hala ere, “oso pusketa gutxitan agertzen” zela dio.


Telebistan egindako lan guztietan gidoia jartzen zioten. Hori irakurri, barneratu eta antzeztu egiten zuen Iñakik. Horrenbeste urtean aktore lanetan ibili ostean, zuzendari izatea inoiz burutik pasatu al zitzaion galdetu eta “ezta pentsatu ere!” erantzuten du, azkar. “Horretarako ez dut balio nik”.

Brinkola telesailarekin utzi zion Iñakik telebistan antzezteari. Argi dago telebistan bizitako “esperimentzia oso polita” izan dela beretzat. “Garai haietako bizipenetatik oroitzapen asko gordetzen ditut”.

Brinkola telesailean, *Balladunak*.



er Altunaren *Topeka*
urmetraian ere hartu
parte.



Telebista mundua utzi zuen arren, oraindik ere ez dio uko egiten beste lanen bat egiteari. Ez du asmorik baina, deitzen badiote, baliteke lana hartzea. Joxe Aranburuk dioenez, “Iñakik sekula ez du ezezkorik eman lan munduari dagokionean. Beti lanerako prest egon da eta horregatik lortu du presentzia hori profesioan”.

Zinemaren ere egin ditu bere ekarpenak Iñakik. *Aupa Etxebeste* pelikulan figurante moduan papel txiki bat bete zuen. *Topeka* eta *Ostertz* laburmetraietan ere agertu zen azpeitiarra. *Topeka*-n protagonismo handiagoa zuen, nahiz eta ahoa zabaldu ez. 2002an filmatu zuen *Topeka*, Asier Altunaren zuzendaritzapean. Laburmetraia horrek zabalkunde handia izan zuen eta “Iñakik, lan hura ospetsu egiten ari zela ikustean, *oin famoso ein beher al diat?*, galdetzen zion bere buruari”, Idoia Uranga lagunak barrezka gogoratzen duenez. “Izan ere *Topeka*-n, lehen aldiz, eta pantaila handian, bere lehen plano bat agertu zen, eta txundituta geratu zen hura ikustean. Irudi haren aurrean honakoa esan zuen Iñakik: *Ño, zatarra nauk ba!*”.

2005. urtean, Asier Altuna eta Telmo Esnalen *Aupa Etxebeste!* pelikulan figurante lanak egin zituen. Pelikula hartan bi edo hiru sekuentziatan

baino agertu ez zen arren, Iñakik dio pelikula batean agertzeak hartzen duela bere pisua. “Ezer gutxi egin arren, poza ematen dit zineman ere lana egin izanak”.

Iñaki Bergarak lan asko egin du Asier Altuna eta Telmo Esnal zuzendariekin; bai telebistan, baita zineman ere. Altunak *Goenkale*-tik ezagutzen zuen aktorea eta *Topeka* egiteko eskaera egin zion. “Iñakiren aurpegia sekulako aurkikuntza” izan zela diote. “Sekulako potentziala duen aurpegia da, asko transmititzen duena. Begirada sakona eta oso aurpegi esanguratsua ditu. Mundu oso bat dago Iñakiren aurpegian”, diote bi zuzendariak. “Pantailarako horrelako balioa duen aurpegia aurkitzea oso zaila” dela diote, eta “azpeitiarrarena horietako bat da. Edozein lanetarako beti burura etortzen zaigun pertsonaia da Iñaki”, berresten dute. Eta pertsonaiaren bat antzezteko aktore bat behar dutenean, beti kontatzen dute Iñakirekin.

Altunaren eta Esnalen iritziz, “lanerako oso gizon ona eta oso lagungarria da; gizon mundiala, maitagarria. Oso harreman ona dugu azpeitiar aktorearekin”.

Ostertz izeneko laburmetraian ere aritu zen azpeitiarra. Iñaki Beraetxek zuzendutako laburme-

traia hartan, Iñakik arrantzale baten papera betetzen zuen. “Behin baino gehiagotan txalupa hartu eta grabatzera itsasora joaten ginen”, gogoratzen du. Donostian filmatu zuten *Ostertz* eta bi edo hiru egunetan joan zen lanera.

Telebistan bezalaxe, zineman egindako lanetan ere gidoiaren arabera antzeztu izan du.

Lan guzti horiek, Iñakirentzat “denborapasa oso politak ziren. Lana izan arren antzeztea oso gustuko dut, eta horregatik, esfortzu gabe egiten nuen lan. *Goenkale*-n nenbilenean, esaterako, Irungo lantegiko erreleboak aldatzen nituen antzeztera joan ahal izateko”.

Bai antzerkian, bai telebistan eta bai zineman, hiru eremuetan “oso gustura” aritu dela dio aktoreak. “Hala ere, kamerak errespetu handiagoa ematen zidan. Batez ere, hasierako garaietan. Deskuidatzen nintzenean eta teknikariek *moztu!* oihukatzen zutenean, beldurtu egiten nintzen; errespetu handia ematen zidan. Halere, beraien akatsa izan zela esanaz lasaitzen gintuen”, aitortzen du Iñakik.

Antzerkian, berriz, “etxean bezalaxe” sentitzen zela dio. “Hain giro ederrean, konfidantza osoarekin, etxekoentzat antzeztea bezalakoa zen”.

Zinemako esperientzia ere “oso aberasgarria” izan dela dio aktoreak.

Urte gutxian lan asko egin du Iñakik pantailan; eta, gainera, hori antzerkiarekin partekatu izan du. “Estresantea ez izateaz gain, niretzako urte paregabeak izan dira. Oso gustura aritu izan naiz eta entretenimendu ederra izan da. Oso gustukoa dut mundu hori eta ez zait batere kostatu izan hainbeste lan egitea. Lanen bat eskaini izan didatenean, inoiz ez dut ezezkorik eman; eta oraindik ere, ziur asko, ez nuke esango”.

Telebistan eta zineman lanean aritutako urte guzti haietan jende asko ezagutzeko aukera izan du Iñakik, eta “lagun onak” egitekoa ere bai. Berak lagun asko egin ditu, bai, baina bera ezagutzeko aukera izan dutenek ere “zorte handia” izan dutela diote. Iñakiri buruz hitz onak baino ez dituzte landakide izandakoek. Beraz, bera gustura aritzeaz gain, bere ingurukoak ere oso gustura ibili dira azpeitiarrarekin lanean.

PARRANDEROA

Iñaki Pio-k oso gogoko izan du betidanik parrandan ibiltzea. Gazte-gaztetatik hasi zen parrandan.

“Garai hartan goizago hasten ginen –dio–. Larunbatetan parranda egiten nuen lagunekin batera, baita jaiegunetan ere. Parranda egiteari utzi diot orain, baina herriko festetan parte hartzen jarraitzen dut”. Azpeitiar peto moduan.

Parrandan dantza asko egiten zuen Iñakik. Hala diote antzerkiko lagunak. “Tabernan zegoen musika zegoela ere, Iñakik trikitia dantzatzen zuen”. Iñigo Agirrek, Antxieta Antzerki Taldeko lagunak, gogoan du behin Gau Txori dantzalekuan zeudela, *reggae* musika zegoela eta Iñaki, bat-batean, trikitia dantzatzen hasi zela musika harekin. “Diskotekakoek musika hura kendu eta, aktoreon erritmoa eta giroa ikusita, trikitia jarri ziguten dantzari jarraitzeko”. Leire Betegik ere gogoratzen du Bergara dantzan. “Azpeitian gerria horrela mugituko duen jende oso gutxi egongo da”, dio.

“Parranda ederrak” botatzen zituen Iñakik antzerkiko taldekideekin batera; Antxietakoekin nahiz Lakrikunekoekin. Goizaldean, denak etxeratzear, Iñaki Xoxotera joaten zen. Denak zisko egin da ohera sartzeko desiratzen zeudenean, Iñaki, Ducadosa ahoan, mendian gora abiatzen zen.

Sasoi oneko gizona izan da beti Iñaki, beraz. Parranda egiten zuen bai, baina ez da inoiz ajeare-

kin ohean egotekoa izan. Gauez parranda egiten bazuen ere, hurrengo eguna aprobetxatu nahi izaten zuen.

SANSEBASTIANAK

Oso gustuko ditu bai saninazioak, bai karnabalak eta baita herriko gainontzeko festa guztiak ere. “Baina, batik bat, sansebastianak ditut gustuko”.

Azpeitian danborrada sortzearekin batera hasi zen parte hartzen. “Hasieran, Oargiren garaietan, Napoleonez jantzita ateratzen nintzen, danborra jotzen. Geroago, 1967an, Alkartasuna danbor taldea sortu zen eta harrezkero handik atera izan naiz. Danborradaren giroa izugarri gustatzen zait, bai kaleetan zehar dabiltzanean, baita plazan biltzen direneko unea ere. Hasieratik bukaerara gozatzen dut San Sebastian bezperako gaua”.

Gainontzeko taldeak soziedade edo elkarte ezberdinetan biltzen ziren bitartean, eurak leku finkorik gabe ibiltzen zirela irribarretsu gogoratzen du Iñakik.

Orain dela urte batzuk, Azpeitiko Danborradak 25 urte bete zituen. Orduan, bai Iñaki Bergara eta baita Juan Jose Arakistanek (Barratsu elkarteko

zuzendaria) ere, danborradan urte gehien zeramatzenak zirela eta, bandera jaitsi zuten Azpeitiko Udaletxean.

Urtemuga horretan bertan, 2007an, Azpeitiko Danborradak liburua idatzi zuten. Liburuko protagonistetako bat zen Iñaki Bergara, beste batzuekin batera.

Irunen lanean egon zen bederatzi urteetan inoiz ez zuen huts egin urtarilaren 19ko gau berezian. “Besterik ezean, erreleboa aldatzen nuen danborra jotzera etorri ahal izateko”.

Pedro Illarramendik, urte luzetan Alkartasunakoen taldea zuzendu zuen gizonak, Iñakirenganako hitz onak baino ez ditu. “Beti taldeko alaitasuna izan da eta taldean giro ederra jartzten zuen. Umore oso oneko pertsona da, eta koardrilakoak izanda, asko gustatzen zitzaidan hura danborradan lehen ilaran edukitzea. Gainera, Pio danborradako figura enblematikoa da. Hainbeste urtean danborradan ibili eta gero, sansebastianetako ezinbesteko figura bat da”.

Kontu pertsonalak medio, azken bi urtetan Iñaki ez da danborradan atera, baina danborradan igarotako hainbeste urte ez dira alferrik izan eta horregatik gordetzen du Alkartasuna taldeko oho-

Sansebastianetako
danborradan, aita bi alabekin.



Alkartasuna taldeko kideak.
Bergara goian, ezker-ezkerrekoa.

rezko postua: lehen ilaran joatea, zuzendariaren aurrean. Jantzia ere etxean gordetzen du oraindik.

Sansebastianetan Iñaki *Pio*-k, danborra jotzeaz gain, lan gehiago ere egin izan du: urte askotan, bolondres lanetan aritu zen karrozak egiten.

Garai batean ‘zaldi mutil’ lanak ere egin zituen. Umeak zaldi gainean joaten ziren eta bera zaldi haiek gidatzen eta zaintzen joaten zen. Bizpahiru urtetan joan zen zaldi aurrean.

Pedro Illarramendik arrazoi osoa du Pio sansebastianetako figura enblematikoetako bat dela esaten duenean.

KARNABALAK

Festa hauek ere oso gustuko izan ditu beti Iñaki *Pio*-k. Orain dela urte batzuk, Kalderero egunean, Ardozaleak elkartekoek Iñakiri omenaldi bat egin nahi izan zioten eta ohorezko kofrade izendatu zuten.

Horretaz gain, urtero-urtero mozorrotu izan da Iñaki bere koadrilako lagunekin batera. Beti ere mozorro ezberdinak janzten zituzten eta euren helburu nagusia, nahiz eta sariak ere jaso izan dituzten, ondo pasatzea zen.

A black and white photograph of a man standing at night. He is wearing a dark leather jacket over a t-shirt with a graphic print. He has a wide, toothy smile and is looking directly at the camera. His hands are in his pockets, and he is wearing dark pants and boots. The background is dark with some out-of-focus lights.

inky-z mozorrotuta, 2004ko
telehen Karnabalean.

Arreba Mamenen esanetan, “zertaz mozorrotuko ginen jakiteko zain-zain egoten zen Iñaki. Nik esaten nion zein mozorro eramango genuen eta Iñaki beti ados egoten zen. Nik josten nion mozorroa, eta edozein mozorro zela ere, gustura janzen zuen”.

Mamenek dioenez, “egunaren hasieran kalera irteten ginen mozorroa soinean genuela, eta Astelehen Karnabaleko festa amaitu arte kalean ibiltzen ginen”.

Iñakiren alaba Milak dioenez, berriz, “orain dela urte gutxi arte egin du gaupasa aitak Astelehen Karnabal gauean. Itsaso eta ni txikiak ginenean, aita kalera joaten zen eta guk etxeko leihotik ikusten genuen, astelehen goizean, txaranga eta zezenan”.

SANINAZIOAK

Aurreko festak bezalaxe, saninazioak ere beti gozatu izan ditu Iñaki *Pio*-k. Mazolari bezala ere urte askoan atera izan da, San Inazio egunean alde zaharrean egin ohi den prozesioan, eta abuztuaren 1ean Loiolako basilikara urtero egiten den bisitan. Udaleko korporazioarekin lehen ilaran joaten zen.

Udal korporazioan mazolari atera izan
da urte askoan. Argazkia, 1999koa da.



Orain dela bi urtera arte jardun zuen mazolari. “Behin hasi ginenean, inork abisatu beharrik gabe San Inazio egunean han joaten ginen ordurako, desfilerako prest. Garai batean jende gazteari eskatzen zioten ateratzeko. Baina parranda zela-edo, beti faltatzen zen baten bat. Azkenean, Udalak helduagoi eskatu zigun prozesioan ateratzeko, eta horrela iritsi zitzaidan gonbidapena”.

ERREGE-KABALGATA

Errege bezperako kabalgatan ere urte askoan atera izan da Iñaki, segizioaren aurrean danborra jotzen. “Koadrilako lau lagunek kabalgatan irteteko ohitura hartu genuen eta han jarraitu genuen urte askoan. Parte hartzeagatik egiten genuen gehien bat, baita laguntzeko ere”.

Iñaki Alberdi ere laukoteko kideetako bat zen. Kabalgataren ibilbide osoa egin ondoren, “laurak batera giro ederrean afaltzera joaten ginen”.

ZEZENKETAK

Azpeitian zezen zaletasun handia dagoela jakin-koa da. Iñakik ere atsegin du mundu hori. Iñakiren

fazeta hau izango da ziurrenik jendeak gutxien eza-
gutzen duena. Eta zezen mundua gustuko izateaz
gain, Azpeitian zezenketekin lotutako ikuskizune-
tan parte hartutakoa ere bada Iñaki *Pio*.

Gaztetan, Bittor Oiarzabal eta beste lagun
batzuekin zekorketak antolatzen hasi zen, ikastola-
rentzat dirua biltzeko. Azpeitiko zezen-plazan egi-
ten zituzten zekorketak, urtero, irailean. Hamar bat
urtean aritu ziren ikuskizun haiek antolatzen.

Hiru lagun torero lanetan aritzen ziren; Iñaki,
aldiz, banderillero moduan. Egun batean “Iñakik
eskapada ederra” egin zuela kontatzen du
Oiarzabalek, banderillero lanetan zebilela. “Lagun
bat toreatzen ari zen, eta estokea gaizki erabiltzen
ari zen. Hori ikusita Iñakik, kailejoitik, *Hi! Estoke
hori fuera!*, oihukatu zion. Toreroak estokea airera
bota zuen eta bete-betea jo zuen”. Oraindik ere,
pasarte hura gogoratzean, *eskerrak egurrezkoa zen!*,
esaten du, estokeagatik.

Oñatzen ere antolatu izan zituzten zekorketak;
oro har, auzoko festetan, sanjoanetan. Eta ez
zekorketak bakarrik, erraldoiak eta gainontzekoak
ere antolatzen zituzten. Mila Bergarak gogoan du
aita behin baino gehiagotan jantzi zela erraldoiz,
giroa alaitzeko asmotan.

Garai batean sokamuturrean ere ibili zen Iñaki. “Karnabal goiz batean, ordea, zezenak sekulako astindua eman zidan eta harrezkero kendu zaizkit zezenerako gogoak. Urte hartan zezenak erretiratu ninduen. Ondoren, gainera, lanera joan behar nuen. Egun hartan lanerako kamioia ez zen agertu eta poz galanta hartu nuen”.

Korridak ere atsegin ditu. “Lehen, korporazioarekin mazolari moduan joaten ginenean, korridak ikustera debalde joateko aukera izaten genuen, eta joaten nintzen zezen-plazara. Hala ere, ordaindu beharko banu ez nintzateke joango. Zaletasuna ez dut hainbestekoa”.

MUSIKAN ERE BAI

Txaranga bateko partaide ere izan zen Iñaki gaztetan; bonboa jotzen zuen. Lagunekin batera ateratzen zen, lau laguneko taldean, eta ederki pasatzen zutela adierazi du Bergarak. “Herriko festetan kalez kale ibiltzen ginen giroa jartzen, eta txarangan ari-tzea parrandarako arrazoia zenez, gustura ibiltzen ginen kaleetan zehar instrumentuak jotzen. Gehienbat, karnabal goizetan ibiltzen ginen”, gogoratzen du.



Erraldoiz jantzita,
Oinatzko festetan, 1961ean.



Azpeitiko zezen-plazan antolatutako
zuten zekorketa batean, 1977an.
Bergara ezkerrekoa da.

Herriko odol-emaileekin batera urtean behin Errioxara joaten zen Iñaki, eguna pasatzera. “Hara ere eramaten genuen txaranga hura, eta Errioxa aldean ere giro ederra jartzen genuen”.

Azpeitiko Musika Bandan ere aritu zen garai batean Iñaki *Pio*, dunbela nahiz txapak jotzen; baina beti ere, baten bat falta zenean haren lekua hartzeko. Inoiz ez zen Azpeitiko Bandako partaide ofiziala izan. “Bizpahiru urtean ibili nintzen, bandan. Jeneralean kalejiretan ibiltzen nintzen, eta Loiolara ere pare bat aldiz joan nintzen, kontzertua ematera. Normalean, karnabaletan eta saninazioetan jotzen nuen herriko bandan”.

Jose Luis Frantzesenak dio “boluntario moduan eta kobratu gabe izan arren, beti laguntzeko prest” agertzen zela Iñaki. “Instrumenturen bat jotzeko deitzen genionean, gorbata lepoan zuela agertzen zen taldera. Guk musika bandako jantzia ematen genion eta hura jantzita ateratzen zen, gainontzeko guztiekin batera”.

Behin, Aretxabaletako Musika Bandarekin batera, Jesus Guridiren *El Caserio* zartzuela taularatu zuten. Obra hartan apaizarena egin zuen Iñakik. Birritan antzeztu zuen azpeitiarrak, lehendabizi Azpeitian eta bigarrengoan Bergaran. “Apaiz batek



Iñaki Bergara bonboajotzen.
Azpeitiko Musika Bandarekin.

baino hobeto egiten zuen apaizarena Iñaki Pio-k berak”, adierazi du Frantzesenak.

Azpeitiko Musika Bandarekin egindako lana ez zen bere hartan geratu. Oraindik ere oso harreman ona du garai hartako taldekideekin. Bandako lagun ziren guztiak oraindik urtero biltzen dira giro ederrean eguna batera pasatzeko. 1986an hartu zuten urtero Beizaman baba-jana egiteko ohitura. “Goizean, txaranga eta guzti irteten ginen kalera. Berrogei lagun inguru elkartzen ginen eta denak batera musika giro ederrean murgiltzen ginen. Musikarekin batera, odolkia eta txorizoa jan eta ardo batzuk hartzeko joera genuen. Ondoren, mezetara joaten ginen. Don Jose Maria apaizak ematen zigun meza”, gogoratzen du Iñakik.

Hasieratan ez ziren komulgatzera joaten, ostia hartu aurretik jan egiten zutelako. Halako batean, apaizak ea zergatik ez ziren joaten galdetu zien, eta erantzun garbia jaso zuen elizgizonak: *Jan ein deuta...* Don Jose Mariak ez zela bekatua esanda, berrogei lagunak Jauna hartzera joan ziren orduan. Iñaki ilarako azkena zen eta apaizak azkenari kalizan sobratutako ardoa ematea erabaki zuen.

Sekulako giroa izaten dute, beraz, urtero. Behin gizon bat bake bila etorri zen gure herri txikira eta,

bakearen ordeztu, sekulako parranda aurkitu zuen bertan. Hura ere animatu eta bazkaltzera joan zen, lagun guztiekin batera. Bazkaldu ostean, mesedez urtero abisatzeko eskatu zien gainontzekoei. Eta horrela, hurrengo bi edo hiru urteetan beraiekin batera joan zen egun hori ospatzera.

ERANTZUN AZKARREKOA

Elduainen antzerkia egitera joan zirenetako batean Joxe Aranburu, Antxieta Antzerki Taldeko laguna, testuarekin nahastu zen eta birritan gauza berbera errepikatu zuen. Ume txiki batek publiko artetik, oihuka, honakoa esan zion: “Aizu! Hori lehen ere esan duzu!”. Iñakik, amorratuta, umeari begiratu zion. Ondoren, emankizuna amaitu eta lagun guztiak bildu zirenean, barru-barrutik atera zitzaion: “Ume alu hori! 25 zentimetro-re ez huan ta!”. Denek barrezka gogoratzen dute pasadizo hura.

Iñakik betidanik erre izan du tabakoa; Ducados markakoa, hain zuzen. Egun batean herriko plazan pasieran zebilela, lagun batek ikusi eta zera esan zion: “Hi, zorionak, Iñaki! Erretziei laga omen diyok!”. Iñakiren erantzuna azkarra izan zen: “Bai! Ointxe bota diat azkena!”.

Beste behin, emazte Mariarekin Lasaoko buelta ematen ari zen, garai batean trenbidea zegoen bidean. Sekulako haizeak jotzen zuen egun hartan. Pasieran zebiltzan beste bi emakumek ikusi eta honakoa esan zioten Iñakiri:

-Hi Iñaki, helduyok ondo andriei, haiziek eaman-go hau ta!

-Ni haiziek eaman? Nik inder asko dauket oindik!

-Hik inderra? Nun dek ba hik inderra?

-Nun, ba? Belarriyetan!

Beti izan da gizon umoretsua Iñaki, eta bere ateraldiekin beti barrez jarri izan du inguruko jende guztia.

TXORI HARRAPAKETAN

Erreklamorako afizioa ere betidanik izan du Iñakik. Txikia zela, aita askotan joaten zen txoriak harra-patzera eta Iñakik harekin joatea atsegin zuen gazetatik. Aitak erreklamoiari laga zionean ere, Iñakik urtetan jarraitu zuen ohitura harekin. Igandero zein jaiegun guztietan txoritara joateko ohitura zuen.

Txori mordo bat harrapatzen zuten aitak eta biak; eta ondoren, baita berak ere. “Gure etxean ez zen inoiz txoririk falta!”, dio.

Harrapatutako txorietako batzuk saldu egiten zituen, baina gehienak oparitan enpleatzen zituen.

Igande goiz batean, ordea, Oñatz aldean erreklamoan zebilela, guardek harrapatu egin zuten. Haietako bat euskalduna zen; bestea, aldiz, erdal-duna. Txoritan ibiltzea legez kanpokoa zenez, ea zenbat txori harrapatu zituen galdetu zioten; eta Iñakik, txori bat bakarrik harrapatu zuela aitortu zien. Bi guardak txori harekin zer egin behar zuten eztabaidatzen hasi ziren. Azkenean, txoria askatzea agindu zioten. Guarden aurrean aske utzi zuen txoria eta haiek, txoria aske ikusi zutenean, alde egiten hasi ziren. Bat-batean, euskaraz egiten zuenak buelta hartu eta Iñakiri honakoa esan zion: *Hi, nahi badek segiu zak reklamuen. Baino kamino onduen ez hai ibili behintzet, lapikue!*

Egun hartatik aurrera, Iñakik reklamoan aritze-ko zaletasuna alde batera utzi zuen.

MENDI BUELTA

Erreklamoari utzi zionean, mendira joateko ohitura handiagoa hartu zuen; lehendik ere askotan joaten zen arren. “Oso gustuko izan dut beti mendira joatea. Gaztetatik izan dut joera eta horrela jarraitu

nuen jubilatuta eta urte batzuetan ere. Igandeetan eta jaiegunetan lagunekin mendi buelta egitea asko gustatzen zitzaidan”, kontatzen du.

Euskal Herriko mendi asko atsegin dituen arren, Iñakirentzat “Izarraitz mundiala da”.

Gaztetan Lagun Onak mendi elkarteko kidea izan zen. Gero, Irunera lanera joan zela eta, ez zuen taldean jarraitu. Baina elkartearen jarraitu ez arren, mendira joaten segitzen zuen.

Jubilatu ondoren, lanean zebilenean baino sarriago joaten zen mendira. “Aste batzuetan hiru aldiz ere joaten nintzen”, dio; 70 urterekin ere, astean hiru aldiz igotzen zen Iñaki Xoxoteko tontorrera. “Eguraldia txarra bazen ere beti bezala joaten nintzen; igoal-igoal zitzaidan eguzkia, euria ala txingorra egin. Beti joaten nintzen nire mendi buelta egitera”.

EGUNEROKOTASUNA

Parranda egiteari utzi ziola dio aktore ohiak, baina ez txikiteoari. “Asko gustatzen zait eguerdi partean eta arratsaldean kalera irtetea eta pare bat txikito hartzea. Hor sortzen den giroa asko gustatzen zait, nahiz eta ohitura galtzen ari dela ikusi”.



Argazkian, Bergara
eguneroko txikiteoan.

Iñakik 13 urte baino ez zituenean hartu zuen txikiteatzeko ohitura. Lanetik irten eta lagunekin biltzen zen txikito batzuk hartu eta, giro ederrean, kontuak esan eta barre saio batzuk egiteko. “Orduan, koadrila handiak biltzen ginen. Gaur egun, aldiz, koadrila gutxiago ikusten dira txikiteoan eta, gainera, koadrila txikiagoak izaten dira. Hala ere, nik behintzat txikiteatzen jarraitzeko asmoa dut”.

Irunen bizi izan zenean ere txikiteatzen zuen Iñakik. Han ere laneko zein auzoko lagunak bazituen, eta haiekin ateratzen zen: “Txikiteroak leku guztietan egoten dira. Eta txikiteroa txikiteroarekin beti ondo konpontzen da. Irunen ere txikiteo giro ederra egoten zen eta ni, lagunekin batera, giro hartan murgiltzen nintzen”.

GIZON MAITATUA

Iñakiren bizitzan zehar berarekin harremana izan duten guztiek bereganako hitz onak baino ez dituzte. Oso gizon maitatua da. Mundu guztiari on egin dion gizona da.

Leire Betegik, Antxieta Antzerki Taldeko lagunak, Iñakiren ondoan emandako urteak “mundia-

lak” izan zirela dio. “Iñaki asko estimatzen dut. Gaztetxoa nintzenean, beti esaten nion: *Iñaki, nik haunditan zu bezelakue nahi det izen*. Oso ondo konpontzen gara biok”.

Joxe Zabala Antxietako kideak ere aktorearenganako oso hitz onak ditu. “Oso zerbiziala dela esango nuke eta, batik bat, bere alderdi humanoa aitaturko nuke, bere gizatasuna, nabarmenduko nuke”.

Lagunen oso laguna dela diote guztiek. Laguntzeko sorbalda beti prest izaten duen gizona. Antzerkiko lagunak “eminentzia” moduan definitzen dute Iñaki. Bere inguruan beti umorea zela nagusi diote denek.

Hala ere, hain berea duen umore on horrek noiz edo noiz une txarrak ere pasatu arazi dizkio Iñakiri. Lagunek gogoan dituzte Iñakiren barre ‘atakeak’. “Askotan barrez hasten zen eta ezin izaten zen gelditu. ‘Atake’ horiek behin baino gehiagotan izaten zituen, eta ezin barreari eutsi”. Imanol Eliasek, Antxieta Antzerki Taldeko zuzendari zenak, antzerkian ematen zizkiola gogoratzen du. Eta bere lagunak diotenez, kalean ere barrez hasi eta ezin izaten zuen geratu. Horrenbeste barre egin eta gero, “tripako min latzak” pasatzen zituen Piok.

BUELTAN, SARIA!

Iñaki Bergara oso pertsona garrantzitsua izan da Azpeitiko herriarentzat eta, zer esanik ez, Azpeitiko antzerkigintzarentzat. 30 urte inguru eman ditu Azpeitiko antzerki munduan; baita herriko gainontzeko ekitaldi garrantzitsuetan laguntzen ere.

Aurten, 2011ko azaroaren 19an, herriko Euskal Antzerki Topaketen barruan Txalo Saria emango dio Azpeitiko Udalak, egindako lan guztiaren errekonozimendu gisa.

Bere ezaugarri duen apaltasuna erabiliz, “ez dut merezi, ez dut ezer egin”, esaten du. Hala ere, asko eskertzen die, “bai Udalari, baita herriari ere”, sari hau berari ematea.

Bai Antxieta Antzerki Taldean ibilitakoek eta bai Lakrikun Antzerki Taldean ibilitakoek, beren esker osoa adierazi nahi diote Udalari, Txalo Saria emateagatik, eta baita Uztarria Komunikazio Taldeari ere, Iñakiren liburuxka biografikoa idazteagatik. “Norbaitek merezi badu, hori Iñaki da”, diote haren kide izandakoek, lagunek, “bizitzan zehar egin duen lan guztiagatik”.

ZORIONAK IÑAKI!

UZTARRIAREN PRODUKTUAK

LIBURUAK

Joxe Takolo	Enekoitz Esnaola, 2001
Angel Otaegi	Iban Arregi, 2001
Imanol Elias	Mailo Oiarzabal, 2002
Patxi Altuna	Josune Etxeberria, 2003
Azpeitiko efemerideak	Imanol Elias, 2003
Azpeitiko mendi gida	Lagun Onak Mendi Bazkuna eta Uztarria, 2004
Euskarazko prentsa eta Azpeitia	Uztarria, 2004
Loiolarik ez balitz	Iñigo Aranbarri eta Jose Luis Otamendi, 2005
Otsobeltz	Andoni Salegi, 2005
Urrestillako musika taldeak	Asier Sustaeta, 2006
Azpeitiarrak Espainiako Gerran	Amaia Mendizabal, 2006
Oroitarri	Kepa Urbieto, 2008

CD-A

Urolaldeko bertso zaharrak	Erniarraitz Bertsozale Elkartea eta Uztarria, 2007
----------------------------	---

LIBURUXKA BIOGRAFIKOAK

Julian Bereziartua	Ander Ugarte, 2009
Leo Etxeberria	Miren Garate, 2009
Valentina Agirre	Olatz Prat, 2009
Santi Lazkano	Nekane Zinkunegi, 2010
Amaia Garmendia	Xabier Otamendi, 2010
Enkarna Arregi	Alexander Silva, 2010

UZTARRIAREN BABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



